

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2017/11/8

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Arratebide inguruko auzotar batzuek eskatu dute soluzio bat emateko Arratebide 5, 7 eta 9 zk.en parean dagoen hormaren ur- eta apar-filtrazioen arazoari. Esaten dute osasungaitza dela eta arazo hori ez dela gertatzen tapiatuta ez dauden hormetan.	Arazo hau Gipuzkoako Urak eta Udal Lantaldeak aztertu zuten. Auzoko etxe bateko garbigailu batetik zetorren ura, beraz, Legarregain 1eko erkidegoak berak konpondu behar du arazoa. Bizilagunei abisua eman zitzaien.
Zerbitzuak	Auzotar bat kexu da Legarregain 1 zk inguruko kutxatiletan arazo bat dagoela.	Arketa ur beltzena da, beraz, Gipuzkoako Urak da arketa hori konpontzeko ardura duena. 2018ko ekainean konpondu zen.
Obrak	Aratebide 2 zk.an pasabide goratua egitea eskatu du.	Eginda dago
Udaltzaingoa	Eskatu du udaltzain bat egotea Markeskua aldean, trafikoa kontrolatzeko ikastetxeko sarrera eta irteera orduetan.	Agindu bat eman da, ahal dela, inguru hartara udaltzain bat bidaltzeko.
Hirigintza	Ekimenak eskatzen dituzte Arratebide ingurua txukuntzeko.	Hobekuntza-proposamen zehatzak, auzoak hobetzeko aurrekontu parte-hartzaileetan egin dira.
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du Tarte taberna pareko parkearen barandan dagoen metakrilato-estaldura tabernako terrazan ere jartzea eraikinera iritsi arte, ingurua gehiago babesteko.	Ez dugu beharrezkoa ikusten panelak umeen jolastokitik aparte jartzea. Pasealeku osoa estali beharko litzateke eta ez da beharrezkoa hori egitea. Segurtasunagatik, jolastokian bertan egin behar da egin beharrezkoa.
Obrak	Salatu du Legarregain 9 zk inguruko urbanizatzeko lanak amaitu ondoren, ez dela baranda jarri obra egin aurretik zegoen bezala. Eskatu du baranda bat jartzea goiko pasabidearen irteeratik eraikineko espalora dagoen oinezkoen igarobidean.	Eskudela edo baranda jartzeko aurrekontua eskatu da. Aurrekontu-disponibilitatearen arabera.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2017/11/8

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Legarre 2 zk.rako irisgarritasuna eskatu du. Udalaren inplikazio handiagoa eskatu du, jende askok ezin baitu etxetik irten.	Herri osoan dago irisgarritasun-arazoa eta hori hobetzen gabiltza. Udalak Ordenantza berezi bat dauka lokalak desjabetzeko, hala egitea beharrezkoa denean; bestalde, bizitegi-eraikinetan igogailuak jartzeko diru-laguntza ildoa ere badu. Konponbiderik egokiena bilatzeko laguntza teknikoa ere ematen du Udalak.
Zerbitzuak	Eskatu du Legarregaineko haur-parkeko inguruak eta eskailerak gehiago garbitzea. Dioenez, belarraz beteta dago, zuhaitz bat idortuta dago eta zorua hondatuta.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari eremu horretan herbicida tratamendua egiteko. Zuhaitzari dagokionez, hori gainbegiratu ostean, jakinarazi zitzaigun ezin dela errekueratu eta datorren neguan (landatzeko garaia) ordezkatu egingo da. Azkenik, haur-parkeari dagokionez, 2018 urteko martxoan konpondu zen.
Zerbitzuak	Auzotar batek dio Legarre 11 zk.an dauden arbolen oinarriak putzuz josita daudela eta eskatu du harriekin edo loreekin estaltzea.	2018 urteko ekainean, lurra bota zen arbolen oinarrietan, hori egiteko agindua eman ostean.
Zerbitzuak	Vildosolaneko txaletaren goiko aldeko parkea garbitzea eskatu du.	Txaleta eraitsi ostean, parkea eta eremua garbitu egin ziren.
Obrak	Auzotar batek galdetzen du ea noiz urbanizatu behar den Vildosolaneko txalet ingurua eta zer egitasmo dagoen leku horretarako.	Berrurbanizazioaren parte bat, Mekola kalekoa, sustapen pribatuari dagokio. Udalari dagokion urbanizazioa —trenbide gaineko pasealekua Vildosolatarren txalet aldera zabaltzea eta Arratebidera igogailu bi egitea— Udalaren aurrekontu-gaitasunaren mende dago.
Zerbitzuak	Mekola kaleko irteerako parkea kentzea proposatu du, inork ez duelako erabiltzen.	Ez da beharrezkotzat jotzen.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2017/11/8

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Galdetu du ea hesiak jarriko diren Itzioko parkean txakurrak han ibiltzeko, eta, hala bada, ea jabeak behartu behar diren txakurren kakak jasotzera.	Txakurren parkea 2017ko Gabonetan jarri zen. Txakur-jabeak derrigortuta daude txakur-kakak jasotzera; horixe da leku hura erabiltzeko arauetako bat.
Hirigintza	<i>Ibilixan-eko</i> ibilbide bat sortzeko proposamena planteatu du, Miraflores, Arrajola eta Sosola lotuko dituen, herriko beste gunek batzuetan dauden bezala,	Mendizaleek erabiltzen dituzten mendi-ibilaldiak dira.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du Legarre 8 zk.ko garajeetako irteeran trafiko-ispilu bat jartzea, Egogain egoitza inguruan.	Legarren ez dago garajerik edo ibilgailu-gordelekurik baimena edo ibia duenik.
Hirigintza	Eraikinaren fatxadaren estetika hobetzea eskatu du Legarre 19an, kafetegia dagoen lekuan.	Fatxada-konponketa partikularrei dagokie. Udalak ematen ditu fatxadak konpontzeko diru-laguntzak, hiri-irudia hobetzeko.
Zerbitzuak	Legarre 19an —kafetegiko terrazaren gunean— argi puntu gehiago jartzea eskatu du.	Duela gutxi leku horretako argitasunaren azterketa egin zen eta bete egiten du Erregelamenduak ezarritakoa, beraz, ez da ikusten beharrezkoa argi gehiago jartzea.
Obrak	Legarren 19 zk.ko fatxadaren ondoan dauden mailak kentzea eskatu du.	Harmailak kentzea ez da egokitzat ikusten: arrapalak larregiko aldapa edukiko luke eta irisgarritasun-araudia ez luke beteko.
Obrak	Mirafloreseko auzotarrek salatu dute ez dela osorik asfaltatu eskatutako gunea. Eskatu dute kontua serio hartzea.	Obrak bideratzen ari dira.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2017/11/8

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu dute Miraflores behealdean ur-isuria dagoela, eta hotza egiten duenean izoztu egiten dela eta labainkor geratzen dela inguru hori.	Lan-agindua eman zen, eta hormaren aldean ukondo batzuk jarri ziren arazorik ez izateko.
Obrak	Mirafloreseko auzotar batek proposatu du dagoen espaloia kentzea eta espaloia goratu sortzea Legarregainera doan saihesbideko sarbideetik, aparkaleku gehiago izateko xedez.	Arratebide 16 eta 18 eraikinetan izango lukeen eraginagatik eta lur-erosketaren arazoengatik, ez da gomendagarria alde horretan hegal-espaloia egitea. Ardantzako BOEn ostean kokatutako ezpondaren gaineko hegal-espaloia zatia konplexutasun tekniko handikoa da eta kostu handikoa, ezponda horrek aldapa handia duelako. Hortaz, ez da lehenesteko inbertsio bat.
Obrak	Legarregaineko igogailuko goiko pasabidearen irteeraren eta iturriaren artean dagoen zeharabidea lekuaz aldatzea eskatu du auzokide batek.	Oinezkoen pasabide goratu bat egin da leku berean, erdian oinezkoen irla duela; horrela, oinezkoen segurtasuna hobetuko da.
Zerbitzuak	Eskatu du Mirafloreseko hustubideak eta arekak garbitzeko. Dioenez, eskatzen denean bakarrik garbitzen dira.	Lan agindua egin zen eta eremu guztiaren garbiketari ekin zitzaion.
Udaltzaingoa	Kexu da Miraflores inguruan ez delako txatarra-pilaketa kontrolatzen.	Gaia kontrolatzen ari da.
Zerbitzuak	Salatu du farola batzuk estalita daudela lehen baserriaren eta goialdearen arteko arbolen hostoekin. Ez dute lagatzen argia pasatzen.	Hemendik epe laburrera moztuko dira adarrak.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2017/11/8

Saila	Laburpena	
Obrak	Auzokide batek eskatu du komun publiko gehiago jartzeko, zeren, jaiak direnean jendea Mekola aldera joaten baita bere beharrak egitera.	San Juan kaleko ostearen zolatzeproiektuan jasota dago komunarena. Obra horiek aurrekontu-disponibilitatearen arabera egingo dira.
Obrak	Arratebiderako irisgarritasuna hobetzea eskatu du.	Arratebideko goiko aldearen irisgarritasuna hobetzeko igogailu bi eraikitzeke asmoa dago, trenbide gaineko pasealekutik abiatuta. Obra horiek aurrekontu-disponibilitatearen arabera egingo dira.
Obrak	Mekola 6 eta San Juan kale osteko pasealekuko zorua aldatzeko proiektuaz galdetu du eta baita Berdintasunaren Pasealekuan zoru lau eraikitzeke egitasmoaz ere.	Amaña aldeko pasealekuaren zoladura-aldaketa kontratatzen ari da. Obrak 2018 urtearen akaberan hasia da asmoa. San Juan kaleko ostea dela-eta: proiektu bat egin da eta obrak aurrekontu-disponibilitatearen arabera egingo dira.